

KMK-99, GABEZIA ZAHARREN ETA ITXAROPEN BERRIEN BIDE GURUTZEAN

Xabier Oleaga

Herri honetako historian hemen inoiz egin den jende kontzentrazio handiena 1984ko urriaren 7an egin zen, seguruenik. Aurten urriaren 3an bilduko den jende andanak bakarrik gaitutuko du orduko marka. Garai hartakoa eta oraingoa, biak, kilometroak ospakariaren eta Orereta Ikastolaren eskutik datoz.

Oarso aldizkarikoek ez dute gertakaria pasatzen utzi nahi izan eta honen berri orrialde hauetara ekartzera gonbidatu gaituzte. Orereta Ikastolan une honetan dagokidan erantzukizun pertsonalarengatik nire bizkar geratu da gonbidapen ohoregarri honi erantzuteko eginkizuna. Apal-apal nator, bada, konpromezu estimagarriari eustera.

Erreteria izango da, Orereta izango da, kilometroak-99ren egoitza, milurtearen bukaerakoa deitu duguna eta bizitasunez beteriko leloarekin, *Bizi*, hornitu duguna, Golden Apple Quartetekoek kantatzen duten bezala. "Bizi da, bizi da, bizi gara, menderik mende bizirik euskara...".

Herriak onetik duenaren onena erakusteko aukera dugu, Kmk-99 ez baitu Orereta Ikastolak patrimonializatuko. Herri honen berri komunikabideetan etengabe aldarrikatzeko aukera ematen du Kmk-99k, eta Orereta Ikastolak, antolamenduaren zama bere gain hartzen badu ere, protagonismoa ez du monopolizatu nahi.

Aukera ona bada elkarlanean azken garaietan gutxitan jardun dutenak oraingoa bestela abiatzeko, beste diferentzia batzuen gainera, hemen dago Kmk-99. Euskal Herri osoan inoiz ez bezalako esperantza giroa bizi bada abagadune honetan, hemen dago Kmk-99 dagokigun alor apalean gure herrian egoera horri bide eginez bakoitzak bere ondarrak jartzeko parada ekarriaz.

Herri bat izan bada gutxienez milurtekoaren azken mende osoan zehar partaidetzazalea, kreatiboa, aktiboa, irudimentsua eta konbatiboa, eraso eta atsekabe gogorren gainera, gure hau izan da. Nola ez da izango aitzindari, zentzu berean, itxaropenari bidea irekitzerako orduan. Honetan datorkigu Kmk-99.



Herriko historian emango den jende kontzentrazioarik handiengan eta iniziatiba batean urteko egitasmorik ugariengan parte hartu nahi ez duenak ez da izango aukera zabalik utzi ez zaiolako. Ikusteko dago lankidetzarako formulak aurkitzerako orduan asmatuko dugun ala ez, baina borondatea behintzat oso nabarmen geratu behar da.

Ikastolaren mugetatik kanpo geratzen dela uste lukeenak jakin beza Kilometroak-ek, eta bera bezalako beste lau festa anaiek (Araba Euskaraz, Ibilaldia, Herri Urrats eta Nafarroa Oinez), badutela fazeta ireki bat, hezkuntza mailako beste deiek ez bezala. Ikastolek antolatzen dituzte jaiok, baina ikastolekin zerikusirik ez duen jende askok parte hartzen du bertan. Ikastolen aldeko jaiak dira, noski. Baina, badira, bai eta ere, euskararen alde eta euskal hezkuntza sistema propio baten alde egiten diren jairik erraldoienak. Helburu horiek patrimonializatu ezinezkoak dira. Askok eta askok konpartitutako asmoak direlako egiten dira Kilometroak bezalako jaiak denentzako ateak eta leihoak irekita.

Hori denaren eredu izan nahi du Orereta Ikastolak antolatutako Kilometroak-ek, milurtekoaren bukaeran abiatzearen erronkari aurre eginez. Hurrengo izango da balantzea egiteko urtea. Gu denon esku dago helburuak bete dituenaren pozkario iragarriaren kronika idaztea.

AURREKARIAK

Kmk-99ren egoitza eta anfitrioi izatearen erronka eta pribilegioa herriarentzat irabazi izanaren pozak bat joan behar du, bestalde, gertakari honen aurrekariak ezagutze-arekin, laburbilduta bada ere.

Orereta Ikastolak hamazortzi ikasle zituen, hamazortzi haur, 1963ko irailean bere ibilbidea hasi zuenean. Gaur egun 1044 ditu. Horietatik 286 Haur Hezkuntzakoak dira. Hezkuntza maila horretako haurrak legezatu gabeko instalakuntzetan zeuden, nahiz eta baimenduta egon, eta aurtan, 1999.ean hain zuzen ere, bukatzen zen egoera horren epea. Urte hori iritsi baino lehen aurkitu behar zitzairen, hala agintzen zuen Administrazioak, kokaleku egokia eta legezkoa orduan Juan de Olazabal kaleko instalazioetan genituen haurtxoei. Felix Oiarbide herritar abertzale eta ikastolazale komentziaren eskuzabaltasun paregabeari esker ikasi dute han gure hurrek azken hamarkadan.

Laurogeigarren hamarkadan bai udal agintariak bai eta ere Eusko Jaurlaritzakoak gure beharrez jakitun ziren eta proiektu bat bestearen gainean jarri ziren mahai gainetan arazoa konpontzeko. Batzu atzera bota ziren, beste batzu zorte hobea lortzen zuten bitartean. Ikastolak bere histo-

ria guztian antolatutako manifestazio bakarra ere orduan burutu zen, garaiko ikastolako lehendakaria zen Mikel Ugalde euskaltzale polifazetiko eta nekazetza aurrean zuelarik.

Giro horretan, Udalak, 1987an, kontsentsu zabala lortu zuen Orereta Ikastolarentzako eraikin baten alde. Alderdi bateko ordezkari bakarra kenduta, orduko EEkoa, beste guztiek baietza eman zioten proiektuari. EEkoa abstenitu egin zen. Proiektuaren arabera, Esmalteria lantegia izan zen hartako gunean Orereta Ikastolarentzat eraikin bat altxako zen, parke batez hornituko zen ingurua, eta, azpian, aparkalekuak egingo ziren.

Baikortasunerako egunak ziren haiek. Udalbatzak osoko bilkura batean hartutako erabakiak atzerazina zirudien. Baina zein bestelakoa izan den geroko errealitatea. Proiektu hark inoiz ez zuen argia ikusiko. Orereta Ikastolaren historian, ikastolen historian bezala oro har, ez zegoen ingenuitatearendako lekurik. Ez zen kasu bakarra Udalak emandako hitza, hitz idatzia, ezerezean geratuko zena, geroxeago ere ikusiko dugun bezala.

Horrela iritsi ginen milurtekoaren azken hamarkadara, arazoa konpondu gabe eta horretarako epea bukatzen. Franco hil ondoren Ikastolen ibilbideari eman zaion astindurik handiena Euskal Eskola Publikoaren izena zeraman legearen bitartez eman zaio. Gure haurrak pasarte horretan ikastolaratzea suertatu zitzaigun gurasoei egokitu zaigu hainbat urte lehenagotik zetorren arazo honi irteera ematea, Haur Hezkuntzako ikasleentzako kokapen egokia aurkitzearena alegia.

Bi bide jorratzea erabaki genuen. Lehenengoa, eskarmen-tua eskarmen-tu, hala ere Administrazioaren aukerak jorratzea, legearen arabera eskola kontzertatuok eskubidea baitugu ikastetxe publiko bat hustuta geratzen bada bere lokaletan sartzeko. Ikasle guztiak etxe batean babilzen ez bazitzaizkigun, azkenean gertatu zaigun bezala, erreserbako etxe bat ere behar genuen eta gestioak ez ziren soberan egongo.

Jorratu genuen bigarren bidea, esperientzia mingotsean oinarrituta ere, baliabide propioak garatuz Esmalteria izan zeneko gunean eraikitzen ari ziren etxeetan lokalak erostea zen.

Lehenengoa oraindik ez du eman fruiturik, eta bai atsekabe bat baino gehiago. Bere egunean alkate izan zen Miguel Buenek, Gobernu Taldeko bileran; PSOE, EA eta EAJko ordezkariekin osatutakoan alegia; Oarso Institutua izan zeneko ikastetxea eskaini zigun gure gabeziei erantzuteko. Hala jakinarazi zion Udalak berak Eusko Jaurlaritzari idatziz. Jaurlaritzak, Inaxio Oliverik adostasuna adierazi ondoren, bete zuen bere parte. Alkatetzak, ordea, Miguel Buen kanpoan geratu ondoren, atzera egin zuen eta hitza jan. Alperrikakoak izan dira EAJ, EA eta HBkoen ahaleginak, baita ere Miguel Buen berarenak, agintean zegoen alderdiko ordezkariak emandako hitzera itzultzeko. Ekainaren 13tik aterako den Udalbatza berriaren teilatuan dago orain pilota. Bitartean udalbatzetik kanpora geratu diren zenbait zinegotzik ahaleginak eta bi egin dituzte herriko zenbait eskola eta erakunde sozialen aurrean Oarso Institutuko lokalak erabiltzea eska dezaten, "bestela Orereta Ikastolakoei eman beharko diegu eta" adieraziz. Bat

baino gehiago etorri zaigu hori kontatzera. Orain pilota Udalbatza berriaren teilatuan geratu da.

Baina bigarren bide bat jorratuko genuela esanda geratu da, baliabide propioetan oinarritutakoa alegia. Honek bai eman ditu bere fruituak. Esmalteriako plazan kokaturiko instalakuntzetan gauzatu da azkenik proiektua. Hori esker, 1999.a iritsi denean Haur Hezkuntzako gure ikasleak legearen babesa duen etxean daude.

Esmalteriakoa, hala ere, ez da sakrifizioerik gabeko bidea. Ikastolak 250 milioiko inbertsioa egin behar izan du egoerari aurre egiteko. Inbertsioen kostoari erantzuteko finantzaketa egitasmoan sartzen da, hain zuzen ere, Kilometroak-99ren ekarpena.

IRAGANA ETA ETORKIZUNA

Ikastolak haurrak euskaraz hezitzen zituzten eskolak izanez hasi ziren. Gaur egun, ordea, bere ibilbidean, eskola eredu propio eta diferentziatua izatera iritsi dira. Francoren garaiko hezkuntza sistemak, Frantziakoak bezala, ez zituen bere barrenean onartzen euskararekin zeukaten loturagatik. Egoera horrek beharrezkoa egin zuen gizartearen mobilizazioa eta horren ondorioz etorri ziren Kilometroak bezalako ekitaldiak.



Euskal Herri autonomikoko sistemak ez ditu bere barruan behar bezala kokatu ikastolak eredu propiozko izaera onartzen ez dielako. Eztabaidaren barruan bada ere, gaur egun alderdi desberdinetako ordezkari koalifikatuek onartzen dute hau honela dela eta agian konponketa egokia emateko abagadune aiproposean gaude. Gasteizko Gobernuan dauden alderdien egitasmoetan inoiz seriozki sartzen bada hezkuntza sistema propioa eraikitzea, orain arte egin ez dena, ziur ikastolei euren kokapen egokia aurkituko zaiela.

Euskal gizarteak, ordea, babes ezin hobea ematen dio ikastolei. Herri honetan bertan, matrikulazio kopururik altuena duen eskola, urtez urte, Orereta Ikastola da. Langaitz Ikastolari berari, Administrazioaren hezkuntza sarean bada ere, bere esparru sozialean urte luzeetan lan meritugarria egin ondoren, matrikulazioa goraka doakio nabarmenki.

Esparru juridiko-administratiboan falta den onarpena gauzaten ez den bitartean Kilometroak-en, eta hau bezalako beste jaien, atzean beti egongo da sakrifizio eta errebinkaziozko osagaia. Orereta Ikastolaren kasuan, aurretik aaldutako gizia.

ELKARTOPAREN BEHARRA

Garai berriak izan daitezela desenkontroak dauden lekuan elkar topatzeko. Gauzak horrela izateko osagai gehiago daude gauzak gertatu diren bezala gertatzeko baino, motibo gehiagorekin sartu garen garai hauetan. Elkar gehiago entzuten badugu errazagoa izango da elkar ulertzea. Iraganari ezin diogu utzi dialogoak baino indar handiagoa izaten, inplikaturakoon onerako eta herri honetako gizarte osorako.

Ez dugu pentsatu behar gure gizarteko zilborra garenik, baina ez eta ere, bertako gizartean oro har, instituzio, alderdi eta erakunde sozialen artean, gure artekoak eragirik ez duenik. Badu, eta handia gainera. Herri honek elkartoparen mezuak, integraziozko mezuak, behar ditu. Bestelakorik gehiegi ere izan du azken urteotan. Ikastola eta aipatutako erakundeen artean behintzat egin diezaiokegu ekarpen hori, zerbitzu hori, gure gizarte gertukoena-ri. Gu ziur gaude horretaz eta ideiak ditugu horretarako. Aukera ematen zaigun unean abian jarriko ditugu, aukera horiek sortzen ere gure indar guztiekin saiatuko gara.

Bidea jorratzen hasteko ataka paregabea litzateke, hain zuzen ere, Kmk-99.

